


OÑATIKO JUBILATU ETA PENTSIODUNEN PROPOSAMENA



OÑATIKO UDALBATZARI MOZIOA AURKEZTEKO ALDERDI POLITIKOEI DEI EGINEZ

MOZIOA : Oñatiko Jubilatu eta Pentsiodunak, idatzi onen bidez eskatzen dugu, mozio hau aztertua izan dadila Udalaren osoko bilkuran eta halaber onar ezazuela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pentsioen eros ahalmena galtzen ari dela. Estatuko gobernuek hurrenez hurren egin dituzten pentsioen erreformak, bai PP-ek nahiz PSOE-ek, kalte handia egin bait digute. Gu gara, pentsiodunak, murrizketak nozitzen ari garenak(hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan berogailua ere ezin dugu piztu) ; aldi berean diru sobera dago bankarentzat, elektrikentzat, enpresarientzat,.....

Pentsiodun gehienok txirotasun muga azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez irautea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudienez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25, pentsiodunak alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez bait dute hartzen.

Bestalde, ez da aurreneko aldia aintzakotzat har gaitzela eskatzen duguna eta duintasunez bizitzen utziko diguten gutxieneko pentsioak berma diezazkigutela. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehienak emakumeak direla, hauek onartezina den zigor bikoitza jasaten dutelarik.

Arestian aipatutako guztiarengatik eta gogoratu **BORONDATE POLITIKOTAZ** ari garela hitz egiten,(zein beste kontu batzuetarako bideratzen da dirua) ; idatzi honen bitartez, **UDALBATZARI ESKATZEN DIOGU** :

- 1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.
- 2.- 1.080€ -tako gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun mugatik irten gaitezen. Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarritakoa betez (batez besteko soldata haztatuaren %60). Hori gauzatzen ez den bitartean, eska diezaiola Gazteizko Jaurlaritzari ezartzeko behar den diru kopurua osagai gisara, pentsiodun guztiak hileroko eskura ahal dezaten aipatutako 1.080 euroak.

3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantza Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.

4.- Datorren urterako , 2019. Urterako, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena, arbuia dadila, zeinak, gure pentsioei beste murrizketa berri bat eta handiagoa ekarriko zien.

5.- Bidal diezazkiela Estatuko Gobernuari eta Gazteizko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak.

..... 2018ko Martxoaren 8an.

Sinatzailea :